

ELKARLAGUNTZARAKO ONTZIAK

Egunero milaka eta milaka kilo janari botatzen dira basurera, arazo hori oinarri hartuta, gure ideia baserritar zein dendariak egunean saltzen ez duten hori uzteko leku bat jartzea da. Hau da, baserritarren kasuan, egunero biltzen duten barazki kopurua handia da eta askotan ez dute dena saltzen, orduan, egokiena izango litzateke, barazki horiek guk zehaztutako leku horretara ematea. Horrela, erosteko diru nahikoa ez duenak, elikagaiak lortzeko aukera edukiko luke, eta gainera horiek ez dute zakarrontzian bukatuko, kasu askotan gertatzen den bezala. Leku hori herriaren zentroan edo jendea gehien ibiltzen den lekuan egongo da kokatuta.

Okindegi edo tabernen kasuan berriz, egunaren amaieran saldu ez duten janari kantitatea handia da, eta barazkien kasuan ez bezala, hauek ezin dira hurrengo egunean saldu, orduan beraiek ere elikagaiak leku horietan uzteko aukera edukiko dute.